


Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Bi exoplanetaren arteko hurbiltasunak zientzialariak harritu ditu



THEEPOCHTIMES.COM

GUREGANDIK 1.200 ARGU-URTERA izar bat eta bi planeta aurkitu dituzte. Izarrari Kepler 36a izena eman diote; bere hidrogeno gehiena kontsumitu du, gure eguzkia baino milaka milioi urte zaharra goa baita. Haren inguruan Kepler 36b eta Kepler 36c planetak biraka ari dira. Lehen harrizkoa da, lurra baino 1,5 aldiz handiagoa, eta hamalau egun behar ditu izarraren inguruan bira bat emateko; bigarrena erabat gaseoso da, eta izarraren inguruko bira hamasei egunetan burutzen du.

97 egunero bi planeta horiek izugarri hurbil igarotzen dira bata bestetik, 1,9 milioi kilometro-ra. Eguzki Sisteman, konparazio baterako, planeten arteko distantziak 30 aldiz handiagoak dira.

Normalki, horrelako kasuetan planeta gaseosoak pixkanaka jan egiten ditu gainerako sistemak, baina kasu honetan ez dirudi hori gertatzen ari denik, eta zientzialariek ez dakite zergatik gertatzen den hori, hau da, nolatan hain dentsitate desberdina duten bi planeta orekan higitzen diren. Hori da argitu beharreko misterioa.



Groenlandiako marrazoa, harrapari mantsoa baina eraginkorra

GROENLANDIAKO MARRAZOEK zazpi metroko luzera izaten dute, eta 500 metroko sakoneran bizi dira. Oso mantso mugitzen dira, ez baitute 0,34 m/s-ko abiadura gainditzen, baina euren sabeletan txipiroiak eta fokak topatu dituzte. Zientzialariek ez dute ulertzen hain mantso mugitzen den animaliak nola harrapatzen dituen harrapakinak.

Susmoa bazegoen harrapakinak atzemetako unean marrazoak abiadura azkarrean zuela. Baina hainbat aleri bizkarrean jarritako abiadura-neurgailuek ezeztatu egin dute hipotesi hori. Nola harrapatzen ditu, orduan, harrapakinak? Oraingoz frogatu gabeko hipotesi bakarra dago: lotan daudela chizatzen dituela. Fokek, adibidez, uretan egiten dute lo sarritan, hartz zuriak harrapatu ez ditzaten.



SHARKASTIC.COM



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Eguraren karbono emisioak, erabileraren araberrak

Egurra erregai gisa erabiltzen denean, haren karbono guztia karbono dioxido gisa emititzen da atmosferara, baina egurra altzari gisa erabiltzean hainbat hamarkadaz gorde dezake bere barruan karbonoa.

ttiki.com/40117 (Gaztelaniaz)

Zelula bizien higidura filmatu da inoizko bereizmen handienarekin

AEBetako ikerlariek garatutako sistema baten bidez, higitzen ari den zelula bakarreko egituren irudiak lortu dira, oso bereizmen handiko mikroskopioak erabiliz. Hala, ezagutzen ez diren hainbat gertakizun biologiko ikertzen hasteko aukera izango da.

ttiki.com/40118 (Gaztelaniaz)

Agur Georges!

Galapago irletan bizi zen Georges dortoka erraldoia hil da, eta berarekin bere espeziea desagertu da, ustez. 100 urteko animalia zela estimatu dute zientzialariek, eta azken urteotan ugalketara bultzatu izan badute ere, ez dirudi kumerik lortu denik.

ttiki.com/40119 (Frantsesez)